

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ipar isurialdeko ibaietan bisoi amerikarra errotik kentzeko kanpaina hasi da

Ur gaineko plataformak jarri dira Europan desagertzeko zorian dagoen bisoi europarraren harrapakaria harrapatzeko.

Ostirala, 2018.eko urriak 26

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Zuzendari Nagusiak 2018-2019 kanpainari hasiera eman dio Nafarroako isurialde atlantikoko ibaietan bisoi amerikarra errotik kentzeko. Aurreko kanpainetan bezala, Bidasoa, Baztan, Ezkurra eta Ezpelura, Araxes, Leitizaran, Urumea, Aritzakun, Urrizate, Orabidea-Ugarana eta Luzaide ibilguetan ur



Ibaietako batean jarritako plataforma.

plataformak jarri dira irailaren erdialdean eta urriaren hasieran, eta funtzionamenduan egongo dira martxoaren amaierara arte. Nafarroako Ingurumen Kudeaketaren (GAN-NIK) sozietate publikoak koordinatu eta LIFE IREKIBAI eta H2Ogurea europar proiektuek [LIFE IREKIBAI](#) y [H2Ogurea](#) finantzatzen dituzte ekintza horiek.

Une honetan, Frantzia larru-etxaldeetatik ustekabeen ihes egindako bisoi amerikarraren basa-populazioak dira zona honetan europar bisoia mantentzeko mehatxurik handiena.

Europan gehien mehatxatuta dagoen haragijalea da europar bisoia, "Egoera kritikoan" katalogatua Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan [Catálogo Español de Especies Amenazadas](#). Iberiar populazioak 500 ale ditu apenas, eta espeziearen azken gotorlekuetako bat da. Kontinentearen erdialdean eta ekialdean bisoi amerikarraren portaera oldarkorraren ondorioz desagertu da jada, ibaien kolonizazioan bisoi europarrari eraso egiten baitio bere lurraldetik botatzeko. Nafarroako isurialde atlantikoko ibaietan eta ubideetan ere gero eta gutxiago dago.

Ur gaineko plataformak ibaietan

Eskozian (Erresuma Batua) aurrera eramán diren proiektuetan garatu eta hobeturiko metodologia bat erabiltzen da bisoi amerikarra detektatu, eta espezie inbaditzaile hori kontrolatu eta errotik kentzeko. Alegia, ibaietan ur gaineko plataformak jartzen dira, kilometro bateko tartea utziz batetik bestera. Horietan bisoiak detektatu egiten dira lehenbizi, eta, harrapatu gero.



Plataformaren barruan jarritako area-tokia, bisoi amerikarrak oinatzak uzten dituen tokia.

Bisoi amerikarra ohituta dago zuloetan sartuta ehizan egitera, beraz, zulo itxurako plataforma horiek ikusten dituenean, pentsatzen du barruan jana topatuko duela. Animaliak oinatzak uzten ditu plataforman jarritako harea-tokian, eta horrek langile teknikoak ohartarazten ditu harrapakinaren bila ibili dela han inguruan. Egun batzuk beranduago, bisoiaren sarrera eta irteera erregularra erregistratu eta gero, teknikariek aztarna-tokian tranpa bat jartzen dute.

2017ko irailean, 150 plataforma inguru jarri ziren ibai horietan. Martxora arte egon ziren funtzionamenduan, eta teknikariek hamar egunean behin berrikusi zituzten. Azterketa horietan oinatzak detektatu zituzten 22 plataformetan, eta tranpak jarri ostean, lau bisoi amerikar harrapatu zituzten, hiru Aritzakun-Urrizaten eta bestea Ugarana-Orabidea Ibadan.

LIFE IREKIBAI eta H2Ogurea europar proiektuak

LIFE IREKIBAI [LIFE IREKIBAI](#) proiektuak bazkideak ditu Euskadin (Gipuzkoako Foru Aldundia, URA eta HAZI Fundazioa) eta Nafarroan (Nafarroako Gobernua GAN-NIK bitartez), beren gaitasunak eta eskumenak bat egiten ari direnak, Bidasoa eta Leizaran ibai-arroetako Natura 2000 Sareko eremuetan interes komunitarioko espezieak eta habitatak mantentzen direla bermatzeko. LIFE ingurumenerako tresna finantzario europarrak finantzatzen du proiektua (LIFE14 NAT/ES/186 IREKIBAI).

Mugaz gaindiko [H2Ogurea](#) proiektuak H2Ogurea (EFA062/15), Bidasoa, Nivelle eta Urumea mugaz gaindiko ibaiak era koordinatuan kudeatzea xede duenak, bazkideak ditu Euskadin (Gipuzkoako Foru Aldundia, URA, Txingudiko Mankomunitatea), Euskal Hirigune Elkargoan, eta Nafarroan (Urdazubiko Udala eta Nafarroako Gobernua GAN-NIK bitartez). Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) Espainia- Frantzia- Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen (POCTEFA 2014-2020) bitartez finantzatutako proiektua da.

Galería de fotos



Vista general de una zona con una plataforma.